

XISTERA PROIEKTUA

1



ZESTA PUNTA BIZIBERRITU ETA
ESKOLAK INDARTZEKO PROIEKTUA

0. SARRERA.

Xistera proiektua zesta-punta biziberritzeko ahaleaginean sorturiko ekimena da. Euskal Herriko xistera elkarte guztiak bat eginik, eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioarekin bat, aspaldian ahuldadean bizi den kirola berrindartu eta berriro ere osasun onera itzul dadin du helburu. Xistera elkargoa jada errealitate bat da.

2

Proiektu honen hasiera Gernikan jarri behar dugu, 2013ko uztailaren 19an hain zuzen ere. Zesta puntaren egoera larria ikusirik, eta Gernika Jai-Alai elkartearen 50. urteurrena baliatuz, aipatu elkarte honek pilota jokamolde honen inguruko foro bat antolatu zuen. Helburua, zesta puntaren oraina eta etorkizunaren inguruan hausnarketa egitea zen, horretarako hiru alorren inguruan mintzatu eta eztabaidatuz: zesta punta eskola kirola gisa, afizionatu mailan eta profesional mailan.

Gernikara bertaratu ginen elkarte ezberdinetako ordezkariak, lurraldeetako federazioak eta Euskadiko Euskal Pilota Elkarteko lehendakaria, Ijapa-ren ordezkariak (puntista profesionalen sindikatua) eta beste zenbait pilotari, pilotari ohiak eta zesta punta munduarekin erlazio zuzena zuten beste zenbait norbanako.

Bertatik ondorio garbi bat atera genuen: zesta puntaren egoera larria mahai gainean jarririk, eta azken aukera edo saiakera genuela jakinda, Euskadiko Euskal Pilota Federazioari, eta zehatzago haren lehendakariari, proiektu bat zuzendu, bideratu eta lideratzeko eskatu zitzaion.

Beraz, Gernikan hasi zen proiektu honen ibilbidea, eta bi urte luzeren ondoren, honaino heldu gara. Proiektua mahai gainean dugu, printzipio argi bat azaleratzen dugularik: indarrak batuz zesta punta dagokion lekuan ipiniko dugu.

Jakin badakigu azken urteotan halako gainbehera bat bizitzen ari dela zesta-punta. Halako kirol ikusgarria, loraldiko urteak bizi ondoren, txanponaren beste aldean dago aspaldian, itzalpean. Eta proiektua MUGARRIA izatea nahiko genuke. Horixe dugu helburu. Eta horretarako ekintza plan bat aurrera eramatea ezinbestekoa izango da datozen urteetan. Urteko plan ezberdinen bidez, ekintza plan orokor eta osatu bat aurrera eramatea. Oraindik Xistera elkargoaren lehen asanblada burutu gabe dagoen arren, bada ekintza plan honen borradore bat, ekintza planak izango dituen zutabe

nagusiak definitzen dituenak. Hauek, hala ere, lehen batzar orokorrean onartu beharko dira, eta beraz, aldaketa batzuk jasan ditzake.

Xistera Euskal Herri osorako proiektua da. Hori bai, zesta puntaren errealitatea Euskal Herriko txoko eta lurraldeetan ezberdina da, eta beraz, errealitate ezberdinetara egokitzeko nahiarekin jaio da. Xistera proiektu baikorra da, errealista, oinarritik sortua eta oinarriarentzat sortua. Proiektuan, iparraldeko elkarteak batzearen esperoan, honako elkarte hauek batu gara:

- **ARABA:**
 - Gasteiz Jai-Alai

- **BIZKAIA:**
 - Berriatua: Berriatuako zesta eskola
 - Markina-Xemein: Markina-Xemein Jai-Alai
 - Bilbo: Bilbao Jai-Alai pelota elkarte
 - Durango: Ezkurdi Jai-Alai
 - Ereño
 - Lekeitio
 - Gernika

- **GIPUZKOA:**
 - Andoain: Gazteleku pelota elkarte
 - Tolosa: Beotibar zesta punta elkarte
 - Mutriku: Danok-Bat
 - Hondarribia
 - Zumaia
 - Donostia: Donosti Jai-Alai

- **NAFARROA:**
 - Noain
 - Cabanillas

- Berriozar: Berriozar Jai-Alai

- IPARRALDE:
 - Donibane Lohizune- Luzean
 - Donibane Garazi- Goizeko Izarra
 - Getari- Olharroa



0.0 EKINTZA PLANAREN ZUTABE NAGUSIAK

1. Xistera proiektuaren helburuak.
2. Haurrak zesta puntara gerturatzea.
 - 2.1 Sustapen jarduerak eskola eta ikastetxeetan.
 - 2.2 Ate irekiak zesta punta eskoletan.
 - 2.3 Zesta punta eta kirol eskola.
3. Zesta punta eskolak eta elkarteak indartzea.
 - 3.1 Material berria eta berritzailea pilotalekuetan.
 - 3.2 Zesta punta entrenatzaileen formakuntza.
 - 3.3 Zesta punta eskola berrien sorkuntza.
 - 3.4 Jarduera gehigarriak: zesta punta kanpusa.
4. Lehiaketa.
 - 4.1 Kalitatezko lehiaketa/txapelketa.
 - 4.2 Ikusle modura gozatzeko aukera.
5. Zesta punta munduan barrena.
6. Zesta punta: komunikabideak eta turismoa.
 - 6.1 Komunikabideak.
 - 6.2 Turismoa.
 - 6.3 Enpresak.
7. Jarduera kronograma.
8. Xistera proiektuaren aurrekontua.
9. Xisteraren antolakuntza.



1.

XISTERA PROIEKTUAREN

HELBURUAK

- Zesta punta proiektuaren inguruan ahalik eta elkarte edo pertsona gehien batzea, guztiok norabide berean indar eginez, pilota jokamoldea berrindartu eta oinarritik sortutako kirol erreferentea izan dadin. (ZESTA PUNTA, KONPROMEZUA)
- Euskal Herriko zesta punta eskolak indartzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko burutuko diren jardueren bidez, gaztetxoek pilota jokamolde honetaz gozatu eta jokatzeko aukera izan dezaten. (AISIALDIKO ZESTA PUNTA EDO ZESTA PUNTA ESKOLA GARAIAN)
- Zesta punta zirkuitu bat osatzea afizionatu maila ezberdinetan, urte osoko egutegi bat osatuz, elkarteetan dabilzan pilotari gazteek kalitatezko txapelketak izan ditzaten. (AFIZIONATU/PROFESIONAL MAILAKO ZESTA PUNTA)
- Proiektu honen laguntzaz antolatuko diren txapelketen bidez, zesta punta jendearen ahotan jartzea, ageriko egitea, komunikabide eta herrietako gainontzeko hedabideetan presentzia nabarmen areagotuz. (GUZTIONTZAKO ZESTA PUNTA)



2. HAURRAK ZESTA PUNTARA GERTURATZEA.

Haurrak zesta-puntara erakartzea da lehenengo helburua. Egungo gizartean ohikoa da umeak beste kirol batzuetara bideratzea, batez ere telebistaren eraginagatik. Baliteke zesta-punta ezohikoa egitea haur askoren artean eta, gutxienez, kirol honen berri izatera bideratuko ditu umeak proiektu honek. Izan ere, etorkizunari begira lan eginez gero, osasun ona ziurra izango du zesta-puntak. Horretarako funtsezkoa da gure kirola ezagutaraztea, ikastola eta ikastetxeen bidez ezagutarazi, ondoren zesta eskolen bidez umeak zestan jolasten hasi eta erakartzeko.

2.1 Sustapen jarduerak eskola eta ikastetxeetan.

Lehen fasean (2016), batez ere jada zesta punta eskolak badauden zonaldean, Xistera elkargoa arduratuko da, bertako zesta punta elkartearekin batera, sustapen kanpaina hauen antolaketaz. Hala ere, sustapen kanpaina honek 2016ko iraila izango du jomuga, eta beraz, hilabete horretan elkarteetara pilotari berriak iristea nahiko dugunez, sustapen jarduera hauek ikasturte amaiera aldera aurrera eramatea aurre-ikusten da.

Saio hauetan parte hartu ahal izateko, ikastetxeak Xistera elkargoaren gonbidapen bat jasoko du, eta honek nahi izanez gero, data eta ordua adostea nahikoa izango da.

NORI ZUZENDUA: baiezkoa ematen duen ikastetxe oro.

ADIN TARTEA: benjaminak. Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. mailak. 8-10 urte.

9

ORDUTEGIA: posible balitz gorputz hezkuntzako saioan, arlo horretako irakasleaz lagundurik.

BALIABIDEAK: entrenatzailea eta materiala Xistera elkargoak jarriko du.

Helburua, urtez-urte, sustapen kanpaina hauek errepikatu eta beste herrietan zabaltzen joatea da, hau da, zesta punta eskola berriak sortu ahala, inguruko herrietan ere kanpainak burutzea. Beraz, urtez-urte zesta punta probatu duen ikasle kopurua handitzen joango da (zonaldeak zabaldu ahala).

2.2 Ate irekiak zesta punta eskoletan.

Iraila hilabete egokia da ate irekien jardunaldiak antolatzeko, inongo adin mugarik gabe. Xistera elkargoak jardunaldi hauek antolatuko ditu. Programazioa eta eguna adostu ondoren, Xistera arduratuko da dagokion triptiko eta kartelen diseinu eta inprimaketaz, eta elkartea horien banaketaz.

Ate irekien jardunaldiek egun bat edo biko iraupena izango dute, eta hauek ere, urtez-urte zabaltzen joango dira eskola berriak sortu ahala.

2.3 Zesta punta eta kirol eskola.

Xisterak hurrei zesta punta kirol eskola barruan praktikatzeko aukera eskaini nahi die hezkuntza helburua lehenetsita, kirol eta maila pertsonalean heziz, norbanakoaren heziketa integrala sustatu asmoz. Horretarako, kirol eskola mailan inplikaturik dauden instituzio ezberdinekin elkarlana bultzatuko du: udaletxe, aldundi, edo elkarte ezberdinekin.



3. ZESTA PUNTA ESKOLAK ETA ELKARTEAK INDARTZEA.

Behin haurrak zesta puntara erakartzeko ahalegina eginda, xistera elkarteak indartzea da helburua. Jakin badakigu ahuldu samar daudela egun klubak: baliabide pertsonalen falta, haur eta pilotari falta, material eskasia, egoera ekonomikoa...

Proiektu honen bitartez, egun martxan dagoen kluba indartu egingo dugu, eta berriak sortu ere bai. Bide horretan jarraitzeko benetan baliagarria izango da Xistera. Bestek beste, horretarako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarriko dira.

3.1 Material berria eta berritzailea pilotalekuetan.

Xistera dagoeneko ari da materialaren inguruan aurrera eramaten ari diren ikerketetan hausnartzen eta frogak egiten, bai adin txikietarako materialari dagokionez, eta baita adinez nagusiago diren gazteen materialari dagokionez ere. Material hori elkarten eskura jarriko du Xisterak, beti ere, egindako azterketa eta frogak positiboak badira. Zehazki, bi proposamenen inguruan lanean ari da elkargoa. Alde batetik, tolesgarria eta plastikoz egina izango den saskia (ikastetxeetan lehen aipatutako kanpainak burutu

ostean banatu eta edozein lekutan aisialdi moduan jolasteko aproposa), eta beste alde batetik, karbonozko zuntzez egindako saskia (zesta puntan hasten diren gazteentzat egokia, arina eta merkea).

3.2 Zesta punta entrenatzaileen formakuntza.

11

Arlo honetan, erabat beharrezkoa izango genuke Euskadiko Euskal Pilota federakuntzaren aholkularitza, eta eurek erabiltzen duten entrenatzaile ikastaroa zesta puntari espreski egokitu eta antolatuko litzateke (lekua eta data oraindik zehaztu gabe).

Ikastaro honek zutabe eta oinarri ezberdinak izango ditu:

- Antolakuntza eta araudia.
- Hastapen tekniko-taktikoa.
- Hastapenaren metodologia eta didaktika.
- Pilota eskolak.
- Formakuntza gehigarria.

3.3 Zesta punta eskola berrien sorkuntza.

Euskal Pilota lurralde federazioarekin elkarlanean, zesta puntaren praktikarako egokiak liratekeen pilotalekuen zerrenda osatuko da: pilotalekuaren luzera eta sarea ba ote duen hartuko dira kontuan. Behin zerrenda osatuta, Xistera elkargoa arduratuko da udalaren inplikazioa bilatzen, ea herrian zesta puntarekin lotura izan duen norbait ba ote dagoen bilatzen... Baldintzak beteko balira, Euskal Herrian zesta punta eskola berri baten atarian geundeke.

3.4 Jarduera gehigarriak: zesta punta kanpusa.

Ekintza osagarri moduan, erabat interesgarria izan daiteke Euskal Herriko pilotari gaztetxoek elkartze bat sustatzea, hau da, zesta puntaren inguruko kanpus bat antolatuz puntista ezberdinak elkar ezagutzea. Bertan, zesta puntarekin erlazionaturiko hainbat gai jorratuko lirateke: entrenamenduen planifikazioa, teknifikazio saioak, saskien konponketak, pilotari profesionalekin elkarrizketak...

Halako ekintzak oso interesgarriak lirateke pilotarien formazio eta motibaziorako.

Xistera arduratuko litzateke kanpus honen antolaketaz: lekua, teknikariak, pilotariak...



4. LEHIAKETA.

Gaztetxoek eta afizionatuek gustura jardungo duten lehiaketa sortzea beharrezkoa da (zirkuitua). Behin umeak erakarrita, kirolean gustura jarraitzeko funtsezkoa da lehiaketa egitura egonkor eta erakargarri bat izatea. Horregatik sortuko dugu zirkuitua, herri ezberdinetan jokatuko diren txapelketak izango dira eta zesta jokalaria lehiaketa erakargarri batean parte hartzeko aukera izango du, telebisatuak izango diren partiduekin eta kalitatezko txapelketarekin.

Zirkuitua Euskal Herriko lurralde guztietara iritsiko da, horrek dakarren guztiarekin: komunikabideak (batez ere telebistaren eragina), kalitatezko partiduak, ikusmina...

4.1 Kalitatezko lehiaketa/txapelketa.

Proiektu honek afizionatu mailako zirkuitu baten antolatzea barne-hartzen du. Zesta puntaren egoera larria ikusirik, beharrezkoa da proiektu sendo eta iraupen luzekoa diseinatzea, eta maila afizionatua berrantolatu beharreko esparrua da. Horregatik, zirkuitua bi mailatan antolatzea aurre-ikusten da:

- ELITE maila

- **KADETE eta JUBENIL maila**

Kalitatezko zirkuitu bat antolatzeak, zenbait irizpide amankomun izatea ondorioztatzen du, guztiok bide beretik joatea, norabide berean indar egitea. Horretarako kirol batzorde bat osatuko da lehiaketaren norabide egokia bermatzeko helburuarekin. Erreferentziazko zirkuitua osatu nahi da, afizionatu mailako pilotariak lehiatzeko gune aproposa izan dezaten, kantxan gozatu dezaten, eta bide batez, eurekin ikusleek ere gozatu dezaten. Zentzu horretan, kadete eta jubenilen zirkuitua antolatzeak berebiziko garrantzia du, eurak izango baitira proiektua datozen urteetan sendotuko dutenak. Eurak dira etorkizuna.

13

Zirkuituan Euskal Herriko lurralde ezberdinetako pilotariak parte hartuko dute: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparralde. Zirkuitua osatuko duten txapelketak amaitu ostean final handia jokatu da, maila bakoitzeko bi aurrelari eta bi atzelari onenen arteko lehia.

Zirkuitua laster aurkeztuko da, eta beraz, laster izango dugu puntista onenekin gozatzeko aukera gure pilotalekuetan.

4.2 Ikusle modura gozatzeko aukera.

Zirkuitua ikusteko erakargarria izango den formatuan eramango da aurrera: kalitatezko partiduak, telebista, prentsa, musika... Ikusleentzat erabat gozagarri suertatuko den egiturarekin. Gerturatzen den jendeak berriro itzuli nahiko du pilotalekura, eta beraz, bada herritarrentzat eskaintza erakargarri bat gehiago.






5. ZESTA PUNTA MUNDUAN BARRENA.

Zesta punta munduan barrena eramatea ere bada helburua. Garai batean bezala, esango genuke. Euskal Herrian barrena indartzen joango den heinean, kanporako leihoak zabaltzea ere komeni baita. Gero eta toki gehiagotan egon, askoz hobeto.

Munduko kontinente denetan jokatu izan da zesta puntan, eta orduko arrakasta berreskuratzea albiste paregabea litzateke. Bide batez, nahiko genuke zesta punta izatea tresna bat gure jatorria eta izaera mundu guztian erakusteko eta zabaltzeko.

Egun ere badira zesta puntan era profesionalean aritzen diren pilotari asko Ameriketako pilotalekuetan. Pilotari horiekin kontaktua mantentzea garrantzitsua da. Zesta punta eskoletan aritzen diren gaztetxoek erreferenteak behar dituzte, eta beraz, beraien elkartetik jauzia eman duten pilotari horiekin kontaktua ahalbidetuko du Xisterak. Pilotariak Euskal Herrira bueltan direnean ere, pilotari hauen presentzia pilotalekuetan bermatuko dugu, txikienekin aritzeko, hauekin jokatzeko...



6. ZESTA PUNTA: KOMUNIKABIDEAK ETA TURISMOA.

6.1 Komunikabideak.

Xistera elkargoak garbi du komunikabideetan eragina izan nahi badu produkzio propio, zehatz eta espezifiko eta ezberdindua behar duela katearen arabera, bai ohiko komunikabideak izan (idatzizko prentsa, TV, irratiak...) edo on-line komunikabideak izan (web orri propioa, zestarekin lotutako web orriak, sare sozialak eta jarraitzaileak...).

Modu honetara ez dugu inongo komunikabideen dependentziarik izango Xisterak antolatuko dituen jarduera guztiak betetzeko, eta gainera, elkarteen egunerokotasuna zabaltzerako orduan presentzia nabarmena izango dugu, beti estiloz kontatua eta barnetik kontrolatua.

Produkzio propio honek, eman nahi dugun irudia beti komunitate kirolarekin lotua izatea ondorioztatzen du, hastapeneko eta oinarrizko kirolari lotua, eta mundura zabaldu nahi dugun herriarekin estuki lotua.

Xisteraren helburuetako bat zesta punta arloan erreferente izatea da, bai nazional eta bai nazioarte mailan. Beraz, burutzen dituen jarduerak egoki zabaldu beharko dira eta eragina izan behar dute plataforma ezberdinetan.

Hau guztia, gure kateetan aurrera eramango diren edukien eta produkzioaren inguruko lanei esker bermatuko da, era jarrai batean aurrera eramango dena, eta komunikabide ezberdinetara formatu egokienean helaraziko dena beraien eskaletan Xisterak lekua izan dezan.

- **Insiders:** hileroko erreportajea, zesta punta eskolen eguneroko lana agertzen duena, baita eduki historiko, puntista aipagarri edo beste zenbait datu kuriosorekin batera (saskiaren osaketa, teknika, nola jokatu agertzen duten tutorialak...)

Era berean, zirkuitua jokatuko den herrien inguruko erreferentziak ohikoak izango dira, herriak zesta puntarekin izan duen eta duen erlazioa agertuz. Sare sozialetarako material egokia izango da, ondoren zabaldu ahalko dena, herria eta herritarrentzat erakargarria, baita zesta punta jarraitzaileentzat ere.

- **Streaming, zuzeneko emankizuna:** bide honen bidez zirkuitu bakoitzeko finala zuzenean eskainiko da. Hala, web orrian bertan zuzenean jarraitu ahalko da, eta era berean, sare sozialetan partekatu, mundu mailan zabal daitekeen tresna osatuz, eta jarraitzaile mugarik gabe.

Seinale hau edozein telebistak eskaini dezake, emankizuna HD kalitatez egiten baita.

- **Highlights, torneo osteko elkarrizketak:** torneoaren momentu onenak eta protagonisten iritziak jasotzen dituen ikus-entzunezko edukia.



6.2 Turismoa.

Zesta punta nortasuna da, zabalkuntza, indarra. Munduan gehien zabaldu den pilota jokamoldea da, munduko pilota jokorik azkarrena. Azkartasuna, arintasuna... ikusgarria!

Gure kirolaren ezaugarriak dira, zesta puntak oinarrian dituen ezaugarriak. Beraz, hori jakinda, beharrezkoa da zesta punta turismoarekin lotzea. Bisitariari gure kultura erakutsi behar diogu, kirola ulertzeko gure modua azaldu, gure gozamena adierazi.

Xisterak Euskal Herriko herri eta hiri ezberdinetako udaletxe eta turismo bulegoekin hitzarmenak sinatzearen alde egingo du. Udal hauen laguntzarekin, Xisterak zesta punta partiduak eta honekin lotura zuzena duten jarduerak antolatuko ditu turistei zuzenduak egongo direnak. Eskaintza erakargarria.


6.3 Enpresak.

Xisterak Euskal Herriko enpresa sareen alde egin nahi du, jakitun baita hauek duten indarraz. Enpresa hauekin lortzen eta ezartzen den harremanak berebiziko garrantzia izango du, zesta punta ezagutu eta jarraituko dutenen sarea osatzen joatea ahalbidetuko baitute.

Xisterak enpresentzako ikuskizunak antolatuko ditu: partiduak, erakustaldiak, kinielak...

Hala ere, erlazio honek ez du mugarik. Elkarlanerako eremua zabala izan daiteke oso, eta hala izan behar du, erakustaldi partiduak jokatzetik haratago joan behar duena: atzerrian nortasun adierazle, erakusketa azokak, elkarlanerako hitzarmenak...

7. JARDUERA KRONOGRAMA.



XISTERA: Euskal Herriko xistera klub en kirol kluba



8. XISTERAREN ANTOLAKUNTZA.

Xisterak proposamen hauei guztiei era egokienean erantzuteko egitura aproposa osatu du. Zuzendaritza batzordea osatuta, bere barne hartzen ditu kargu ezberdinak aurrera eramango dituzten batzordeak: kirol batzordea, zesta punta eskoletako sustapen batzordea, komunikazio arduraduna eta merchandising arduraduna. Hauei, Euskadiko pilota federazioaren kirol zuzendariaren aholkularitza gehitu behar zaio. Gainera, Xistera Euskal Herriko zesta punta elkarte guztien batura da, eta bertan inplikatu dira, pilotari gaztetxoek guraso, pilotari, pilotari ohi, pilotari profesional eta zesta punta maite duten beste hainbat norbanako.

Hemen Xisteraren zuzendaritza batzordea eta lan batzordeak:

IBON URREISTI ELEZGARAY	LEHENDAKARIA
AITZOL ETXABE KAPEROTXIPI	BOKALA
XABIER GAMARRA DE VALDIVIELSO	BOKALA
FELIX ESPILLA URIZARBARRENA	BOKALA
JOSU MUGARTEGI LEJARDI	BOKALA
ANDONI LERTXUNDI ARRATIBEL	IDAZKARIA
SABINO OLARRETA MUSATADI	DIRUZAINA
IÑIGO DE MARCOS MARDONES	BOKALA
KOLDO RABADAN IZAGIRRE	BOKALA
IGOR LIZASOAIN MUGIKA	BOKALA
JON MENDIZABAL BARRENETXEA	BOKALA
JOSE IGNACIO BAILO CALVO	BOKALA

FELIX ESPILLA URIZARBARRENA	KIROL BATZORDEA
JOSU MUGARTEGI LEJARDI	KIROL BATZORDEA
ANDONI LERTXUNDI ARRATIBEL	KIROL BATZORDEA
JON MENDIZABAL BARRENETXEA	KIROL BATZORDEA
IZARO ARBE IZAGIRRE	ESKOLA SUSTAPENA
KOLDO RABADAN IZAGIRRE	ESKOLA SUSTAPENA
IGOR LIZASOAIN MUGIKA	ESKOLA SUSTAPENA
IÑIGO DE MARCOS MARDONES	MERCHANDISING
JUAN LUIS IBARRETXE MARCOS	KOMUNIKAZIOA

Honi guztiari, proiektua babesten duten instituzio eta eragileak gehitu behar zaizkio.

Hasiera-hasieratik, Xisterak instituzio ezberdinen sostengua jaso du:

- Eusko Jaurlaritza
- Nafarroako Gobernua
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia

- Arabako Foru Aldundia
- Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza
- Proiektura batu diren udalak eta batuko direnak.

Garbi dago proiektua egingarria dela, errealia eta baikorra.

21

Instituzio eta eragile ezberdinen laguntzaz Xistera helmugara iritsiko da, hemen zehaztu diren jarduerak aurrera eramango dituelarik. Hala, zesta punta biziberrituko dugu. Ziur gaude!

